

## **Convención para reducir los casos de apatridia**

Adoptada el 30 de agosto de 1961 por una Conferencia de Plenipotenciarios que se reunió en 1959 y nuevamente en 1961, en cumplimiento de la resolución 896 (IX) de la Asamblea General, de 4 de diciembre de 1954

Entrada en vigor: 13 de diciembre de 1975, de conformidad con el artículo 18

### **Los Estados contratantes,**

Actuando en cumplimiento de la resolución 896 (IX), adoptada por la Asamblea General de las Naciones Unidas el 4 de diciembre de 1954, y

Considerando conveniente reducir la apatridia mediante un acuerdo internacional,

Han convenido en lo siguiente:

### **Artículo 1**

1. Todo Estado contratante concederá su nacionalidad a la persona nacida en su territorio que de otro modo sería apátrida. Esta nacionalidad se concederá:

- a) De pleno derecho en el momento del nacimiento, o
- b) Mediante solicitud presentada ante la autoridad competente por el interesado o en su nombre, en la forma prescrita por la legislación del Estado de que se trate. Salvo lo dispuesto en el párrafo 2 del presente artículo, la solicitud no podrá ser rechazada.

Todo Estado contratante cuya legislación prevea la concesión de su nacionalidad mediante solicitud, según el apartado b del presente párrafo, podrá asimismo conceder su nacionalidad de pleno derecho a la edad y en las condiciones que prescriba su legislación nacional.

2. Todo Estado contratante podrá subordinar la concesión de su nacionalidad según el apartado b del párrafo 1 del presente artículo a una o más de las condiciones siguientes:

## **Aberri gabetasun kasuak gutxitzeko Konbentzioa**

Ahalguztidunen Konferentziak, 1959an eta berriz 1961ean bildu zenak onetsia 1961eko abuztuaren 30ean, 1954ko abenduaren 4ko Biltzar Orokorren 896 (IX) ebazpena betetzeko

Indarrean jartzea: 1975eko abenduaren 13an, 18. artikuluekin bat etorriz.

### **Estatu kontratugileek,**

Jardunez 1954ko abenduaren 4an Nazio Batuen Biltzar Orokorra onetsitako 896 (IX) ebazpena betetzeko, eta

Kontuan harturik onuragarria dela aberri gabetasun kasuak gutxitzea nazioarteko erabakiaren bitartez,

Hurrengo hitzartu dute:

### **1. artikulua**

1. Estatu kontratugile guztiek emango diote naziotasuna bere lurraldean jaiotako pertsona orori, bestela pertsona hori aberrigabe izango litzateke. Naziotasuna emango da:

- a) Eskubide osoz, jaiotzen den unean, edo
- b) Interesdunak edo bere izenean beste batek agintari eskudunari halakoa eskatzen dionean, kasuan kasuko estatuaren legeriak agindutakoaren arabera. Artikulu honen 2. paragrafoan xedatutakoa salbu, eskabideari ezin izango zaio uko egin.

Estatu kontratugile orok, bere legearen arabera, naziotasuna eskabidearen bitartez ematea aurreikusten duenean, naziotasuna eskubide osoz eman ahal izango du, nazio-legeriak agindutako adin eta baldintzetan.

2. Estatu kontratugile orok, artikulu honen 1. paragrafoaren b atalaren arabera, jarri dezake naziotasuna ematea ondorengo baldintzetako baten edo gehiagoren mende:

a) Que la solicitud se presente dentro de un período fijado por el Estado contratante, que deberá comenzar a más tardar a la edad de 18 años y que no podrá terminar antes de la edad de 21 años, entendiéndose que el interesado deberá disponer de un plazo de un año, por los menos, para suscribir la solicitud personalmente y sin habilitación;

b) Que el interesado haya residido habitualmente en el territorio nacional por un período fijado por el Estado contratante, sin que pueda exigirse una residencia de más de 10 años en total ni que el período inmediatamente anterior a la presentación de la solicitud exceda de cinco años;

c) Que el interesado no haya sido condenado por un delito contra la seguridad nacional ni a una pena de cinco o más años de prisión por un hecho criminal;

d) Que el interesado no haya adquirido una nacionalidad al nacer o posteriormente.

3. No obstante lo dispuesto en el apartado b del párrafo 1 y en el párrafo 2 del presente artículo, todo hijo nacido dentro del matrimonio en el territorio de un Estado contratante cuya madre sea nacional de ese Estado, adquirirá en el momento del nacimiento la nacionalidad de dicho Estado si de otro modo sería apátrida.

4. Todo Estado contratante concederá su nacionalidad a la persona que de otro modo sería apátrida y que no ha podido adquirir la nacionalidad del Estado contratante en cuyo territorio ha nacido por haber pasado la edad fijada para la presentación de su solicitud o por no reunir los requisitos de residencia exigidos, si en el momento del nacimiento del interesado uno de los padres tenía la nacionalidad del Estado contratante mencionado en primer término. Si los padres no tenían la misma nacionalidad en el momento del nacimiento de la persona, la legislación del Estado contratante cuya nacionalidad se solicita determinará si esa persona sigue la condición del padre o la de la madre. Si la nacionalidad así determinada se concede mediante la presentación de una solicitud,

a) Eskabidea aurkeztea estatu kontratugileak finkatutako aldian,aldi hori beranduen jota ere, 18 urterekin hasiko da eta ezin izango da bukatu 21 urte baino lehenago. Hainbatez, interesdunak gutxienez urtebeteko epea izango du eskabidea egiteko, bere kabuz eta inolako gaikuntzarik gabe.

b) Interesdunak ohiko bizilekua nazio-lurraldean izatea, estatuak finkatutako aldian; hala eta guztiz ere, ezin zaio eskatu, orotara 10 urte baino gehiago bertan biziitzea, ezta eskabidea aurkeztu baino aurreko aldiak bost urte gainditzea ere;

c) Interesdunak zigorrik jaso ez izana nazio-segurtasunaren aurka egindako delitu batengatik, ezta bost urte edo gehiagorako espetxealdia, egintza kriminal batengatik;

d) Interesdunak naziotasunen bat eskuratu ez izana jaiotzean edo geroko batean.

3. Artikulu honen 1. paragrafoko b atalean eta 2. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, estatu kontratugile baten lurraldean, ezkontzaren barruan jaiotako seme-alabek, amak estatu horren naziotasuna duenean, aipatu estatuko naziotasuna izango dute jaiotzen diren unetik beretik, bestela pertsona hori aberrigabe izango bailitzateke.

4. Estatu kontratugile orok emango dio bere naziotasuna bestela aberrigabea izango litzatekeen pertsonari, horrek ezin izan badu hartu jaio den estatu kontratugilearen naziotasuna, eskabidea egiteko finkatutako adina gainditu duelako edota eskatutako bizileku-baldintzak bete ez dituelako; hori guztiori interesduna jaiotzen den unean gurasoetako batek lehenik aipatu estatu kontratugilearen naziotasuna badu. Pertsona jaiotzen den unean, gurasoek ez badute naziotasun berbera, zein estatu kontratugileen naziotasuna eskatu eta estatu horren legeriak zehaztuko du pertsona horrek aitaren edo amaren naziotasuna izango duen. Horrela zehaztutako naziotasuna eskabidearen bitartez ematen bada, orduan eskabidea pertsona interesdunak

tal solicitud deberá ser presentada por la persona interesada o en su nombre ante la autoridad competente y en la forma prescrita por la legislación del Estado contratante.

5. Todo Estado contratante podrá subordinar la concesión de su nacionalidad según el párrafo 4 del presente artículo a una o varias de las condiciones siguientes:

- a) Que la solicitud se presente antes de que el interesado alcance la edad determinada por el Estado contratante, la que no podrá ser inferior a 23 años;
- b) Que el interesado haya residido habitualmente en el territorio del Estado contratante durante un período inmediatamente anterior a la presentación de la solicitud determinado por ese Estado, sin que pueda exigirse que dicho período exceda de tres años;
- c) Que el interesado no haya adquirido una nacionalidad al nacer o posteriormente.

#### **Artículo 2**

Salvo prueba en contrario, se presume que un expósito que ha sido hallado en el territorio de un Estado contratante ha nacido en ese territorio, de padres que poseen la nacionalidad de dicho Estado.

#### **Artículo 3**

A los efectos de determinar las obligaciones de los Estados contratantes en la presente Convención, el nacimiento a bordo de un buque o en una aeronave se considerará, según sea el caso, como ocurrido en el territorio del Estado cuyo pabellón enarbole el buque o en el territorio del Estado en que esté matriculada la aeronave.

#### **Artículo 4**

1. Todo Estado contratante concederá su nacionalidad a una persona que no haya nacido en el territorio de un Estado contratante y que de otro modo sería apátrida si en el momento del nacimiento del interesado uno de los padres tenía la nacionalidad del primero de esos Estados. Si los padres no tenían la misma

edo bere izenean diharduenak aurkeztu beharko du agintari eskudunaren aurrean, estatu kontratugilearen legeriak agindutakoaren arabera.

5. Estatu kontratugile orok, artikuluko honen 4. paragrafoaren arabera, jarri dezake naziotasuna ematea ondorengo baldintzetako baten edo gehiagoren mende:

- a) Interesdunak eskabidea aurkeztea estatu kontratugileak zehaztutako adina baino lehen, adin hori ezin izango da 23 urte baino gutxiagokoa izan;
- b) Interesdunak ohiko bizilekua estatu kontratugilearen lurraldean eskabidea aurkeztu aurretiko aldi izatea, estatu horrek zehazten duela aldi hori; halaber, ezin izango da eskatu aldi hori hiru urtekoa baino gehiagokoa izatea;
- c) Interesdunak naziotasunen bat eskuratu ez izana jaiotzean edo geroko batean.

#### **2. artikulua**

Aurkako frogarik izan ezean, uste izango da estatu kontratugilearen lurraldean aurkitutako haurrak, guraso ezagunik ez dutenak, lurralde horretan jaio direla, estatu horren naziotasuna duten gurasoek sorturik.

#### **3. artikulua**

Konbentzio honen estatu kontratugileen betebeharrak zehazteko, ontzi edo aireontzi batean jaiotzea, kasu bakoitzaren arabera, ontziak zein estatuko bandera izan edota aireontzia zein estatutan matrikulatuta egon eta estatu horren lurraldean jaiotzea bezala hartuko da.

#### **4. artikulua**

1. Estatu kontratugile orok emango dio bere naziotasuna, bertako lurraldean jaio ez den pertsonari, bestela pertsona hori aberrigabe izango bailitzateke, baldin eta interesduna jaio zen unean gurasoetako batek lehenik aipatu estatuko naziotasuna bazuen. Pertsona jaio den unean, gurasoek ez bazuten naziotasun berbera,

nacionalidad en el momento del nacimiento de la persona, la legislación de dicho Estado contratante determinará si el interesado sigue la condición del padre o la de la madre. La nacionalidad a que se refiere este párrafo se concederá:

- a) De pleno derecho en el momento del nacimiento, o
- b) Mediante solicitud presentada ante la autoridad competente por el interesado o en su nombre, en la forma prescrita por la legislación del Estado de que se trate. Salvo lo dispuesto en el párrafo 2 del presente artículo, la solicitud no podrá ser rechazada.

2. Todo Estado contratante podrá subordinar la concesión de la nacionalidad, según el párrafo 1 del presente artículo, a una o varias de las condiciones siguientes:

- a) Que la solicitud se presente antes de que el interesado alcance la edad determinada por el Estado contratante, la que no podrá ser inferior a 23 años;
- b) Que el interesado haya residido habitualmente en el territorio del Estado contratante durante un período inmediatamente anterior a la presentación de la solicitud determinado por ese Estado, sin que pueda exigirse que dicho período exceda de tres años;
- c) Que el interesado no haya sido condenado por un delito contra la seguridad nacional;
- d) Que el interesado no haya adquirido una nacionalidad al nacer o posteriormente.

#### **Artículo 5**

1. Si la legislación de un Estado contratante prevé la pérdida de la nacionalidad como consecuencia de un cambio de estado tal como el matrimonio, la disolución del matrimonio, la legitimación, el reconocimiento o la adopción, dicha pérdida estará subordinada a la posesión o la adquisición de la nacionalidad de otro Estado.

2. Si, de conformidad con la legislación de un Estado contratante, un hijo natural pierde la nacionalidad de dicho Estado como consecuencia de un reconocimiento

estatu kontratugile horren legeriak zehaztuko du pertsona horrek aitaren edo amaren naziotasuna izango duen. Paragrafo honek aipatu naziotasuna emango da:

- a) Eskubide osoz, jaiotzen den unean, edo
- b) Interesdunak edo bere izenean beste batek agintari eskudunari halakoa eskatzen dionean, kasuan kasuko estatuaren legeriak agindutakoaren arabera. Artikulu honen 2. paragrafoan xedatutakoa salbu, eskabideari ezin izango zaio uko egin

2. Estatu kontratugile orok, artikulu honen 1. paragrafoaren b atalaren arabera, jarri dezake naziotasuna ematea ondorengo baldintzetako baten edo gehiagoren mende:

- a) Interesdunak eskabidea aurkeztea estatu kontratugileak zehaztutako adina baino lehen, adin hori ezin izango da 23 urte baino gutxiagokoa izan;
- b) Interesdunak ohiko bizilekua estatu kontratugilearen lurraldean eskabidea aurkeztu aurretiko aldi izatea, estatu horrek zehazten duela aldi hori; halaber, ezin izango da eskatu aldi hori hiru urtekoa baino gehiagokoa izatea;
- c) Interesdunak zigorrik jaso ez izana nazio-segurtasunaren aurka egindako delitu batengatik;
- d) Interesdunak naziotasunen bat eskuratu ez izana jaiotzean edo geroko batean.

#### **5. artikulua**

1. Estatu kontratugile baten legeriak aurreikusten badu naziotasuna galtzea egoera zibilaren aldaketaren baten ondorioz, dela ezkontza, dela ezkontza desagitea, dela legitimazioa, dela aitortza edo adopzioa, galera hori beste estatuaren naziotasuna izatearen edo hartzearen mende geratuko da.

2. Seme-alaba naturalak, estatu kontratugile baten legeriarekin bat etorritik, estatu horren naziotasuna galtzen badu seme-alabatasunari buruzko aitopenen

de filiación, se le ofrecerá la posibilidad de recobrarla mediante una solicitud presentada ante la autoridad competente, solicitud que no podrá ser objeto de condiciones más estrictas que las determinadas en el párrafo 2 del artículo 1 de la presente Convención.

#### **Artículo 6**

Si la legislación de un Estado contratante prevé que el hecho de que una persona pierda su nacionalidad o se vea privada de ella entraña la pérdida de esa nacionalidad por el cónyuge o los hijos, la pérdida de la nacionalidad por estos últimos estará subordinada a la posesión o a la adquisición de otra nacionalidad.

#### **Artículo 7**

1. a) Si la legislación de un Estado contratante prevé la renuncia a la nacionalidad, dicha renuncia sólo será efectiva si el interesado tiene o adquiere otra nacionalidad;

b) La disposición del apartado a del presente párrafo no se aplicará cuando su aplicación sea incompatible con los principios enunciados en los artículos 13 y 14 de la Declaración Universal de Derechos Humanos, aprobada el 10 de diciembre de 1948 por la Asamblea General de las Naciones Unidas.

2. El nacional de un Estado contratante que solicite la naturalización en un país extranjero no perderá su nacionalidad a menos que adquiere o se le haya dado la seguridad de que adquirirá la nacionalidad de dicho país.

3. Salvo lo dispuesto en los párrafos 4 y 5 del presente artículo, el nacional de un Estado contratante no podrá perder su nacionalidad, si al perderla ha de convertirse en apátrida, por el hecho de abandonar el país cuya nacionalidad tiene, residir en el extranjero, dejar de inscribirse en el registro correspondiente o cualquier otra razón análoga.

4. Los naturalizados pueden perder la

ondorioz, naziotasuna berreskuratzeko aukera emango zaio horri, agintari eskudunaren aurrean egindako eskabidearen bitartez; eskabide horrek ezin izango du konbentzio honen 1. artikulua 2. paragrafoan zehaztutako baldintzak baino zorrotzagoa izan.

#### **6. artikulua**

Estatu kontratugilearen legeriak aurreikusten badu pertsona batek naziotasuna galtzen duenean edo pertsona horri halakoa ukatzen zaionean, berarekin batera ezkontideak edo seme-alabek ere galduko dutela naziotasun hori, orduan azken horien naziotasunaren galera, beste naziotasun bat eduki edo eskuratzearen mende geratuko da.

#### **7. artikulua**

1. a) Estatu kontratugilearen legeriak aurreikusten badu naziotasunari uko egitea, uko egite hori eraginkorra izango da bakar-bakarrik interesdunak beste naziotasun bat duenean edo eskuratzen duenean;

b) Paragrafo honen a atalaren xedapena ez da aplikatuko bateragarria ez bada Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 13 eta 14. artikuluetan aipatu printzipioekin, adierazpen hori Nazio Batuen Biltzar Orokorrak 1948ko abenduaren 10ean onetsi zuela.

2. Estatu kontratugilearen nazional batek eskatzen badu herrialde atzeritar batean bertakotzea, horrek ez dio ekarriko bere naziotasunaren galera, herrialde horren naziotasuna eskuratzen ez badu edo halakoa eskuratuko duen ziurtasuna eman ez bazaio.

3. Artikulu honen 4 eta 5. paragrafoetan xedatutakoa salbu, estatu kontratugilearen nazional batek ezin izango du naziotasunik galdu, halakoa galduz gero aberrigabe bihurtzen bada, zein herrialdetako naziotasuna izan eta herrialde hori abandonatzearen, atzerrian bizi izatearren, kasuan kasuko erregistroan ez inskribatzearen edota antzeko beste edozein arrazoi dela bide.

4. Bertaratutakoek, atzerrian bizi badira,

nacionalidad por residir en el extranjero durante un período fijado por la legislación del Estado contratante, que no podrá ser menor de siete años consecutivos, si no declaran ante las autoridades competentes su intención de conservar su nacionalidad.

5. En el caso de los nacionales de un Estado contratante nacidos fuera de su territorio, la legislación de ese Estado podrá subordinar la conservación de la nacionalidad, a partir del año siguiente a la fecha en que el interesado alcance la mayoría de edad, al cumplimiento del requisito de residencia en aquel momento en el territorio del Estado o de inscripción en el registro correspondiente.

6. Salvo en los casos a que se refiere el presente artículo, una persona no perderá la nacionalidad de un Estado contratante, si dicha pérdida puede convertirla en apátrida, aunque dicha pérdida no esté expresamente prohibida por ninguna otra disposición de la presente Convención.

### **Artículo 8**

1. Los Estados contratantes no privarán de su nacionalidad a una persona si esa privación ha de convertirla en apátrida.

2. No obstante lo dispuesto en el párrafo 1 del presente artículo, una persona podrá ser privada de la nacionalidad de un Estado contratante:

a) En los casos en que, con arreglo a los párrafos 4 y 5 del artículo 7, cabe prescribir que pierda su nacionalidad;

b) Cuando esa nacionalidad haya sido obtenida por declaración falsa o por fraude.

3. No obstante lo dispuesto en el párrafo 1 del presente artículo, los Estados contratantes podrán conservar la facultad para privar a una persona de su nacionalidad si en el momento de la firma, ratificación o adhesión especifican que se reservarán tal facultad por uno o varios de los siguientes motivos, siempre que éstos estén previstos en su legislación nacional en ese momento:

a) Cuando, en condiciones incompatibles con el deber de lealtad al Estado contratante, la persona,

i) A pesar de una prohibición expresa del

galdu dezakete naziotasuna estatu kontratugilearen legeriak finkatutako aldian; aldi hori ondoz ondoko zazpi urte baino gutxiagokoa ezin da izan, agintari eskudunei ez badiete adierazten naziotasuna gordetzeko asmoa.

5. Estatu kontratugile baten lurraldetik kanpo jaiotako nazionalen kasuan, estatuaren legeriak, interesdunak adin nagusitasuna lortu eta urte betera, naziotasuna gordetzea jar dezake hurrengoan mendean: edo, une horretan bertan estatuaren lurraldean bizileku izatea, edo, kasuan kasuko erregistroan inskribatuta egotea.

6. Artikulu honetan aipatu kasuak salbu, pertsona batek ez du estatu kontratugile baten naziotasunik galduko, galera horrek aberrigabe bihurtzen badu, nahiz eta galera horretarako berariazko debekurik ez barruratu, konbentzio honen xedapenetatik batek berak ere.

### **8. artikulua**

1. Estatu kontratugileek ez diote euren naziotasuna inori kenduko, kentze horrek aberrigabe bihurtzen badu pertsona hori.

2. Artikulu honen 1. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, pertsona bati kendu ahal izango zaio estatu kontratugile baten naziotasuna:

a) Naziotasuna galtzea agindu daitekeen kasuetan, 7. artikulua 4. eta 5. paragrafoen arabera;

b) Naziotasuna adierazpen faltsu baten edo iruzurraren bidez lortu denean.

3. Artikulu honen 1. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, estatu kontratugileek ahalmena dute pertsona bati naziotasuna kentzeko, halakoa sinatu, berretsi edo atxikitzen duten unean estatuok zehazten badute ahalmen hori gordetzen dutela ondorengo arrazoietatik bat edo batzuegatik, betiere, une horretan nazio-legeriak arrazoi horiek aurreikusten baditu:

a) Estatu kontratugileari zor zaion leialtasunarekin bateragarriak ez diren baldintzetan, pertsonak,

i) Beste estatu bati zerbitzuak eman eta

Estado contratante, haya prestado o seguido prestando servicios a otro Estado, haya recibido o seguido recibiendo dinero de otro Estado, o

ii) Se haya conducido de una manera gravemente perjudicial para los intereses esenciales del Estado;

b) Cuando la persona haya prestado juramento de lealtad o hecho una declaración formal de lealtad a otro Estado, o dado pruebas decisivas de su determinación de repudiar la lealtad que debe al Estado contratante.

4. Los Estados contratantes solamente ejercerán la facultad de privar a una persona de su nacionalidad, en las condiciones definidas en los párrafos 2 ó 3 del presente artículo, en conformidad con la ley, la cual proporcionará al interesado la posibilidad de servirse de todos sus medios de defensa ante un tribunal o cualquier otro órgano independiente.

#### **Artículo 9**

Los Estados contratantes no privarán de su nacionalidad a ninguna persona o a ningún grupo de personas, por motivos raciales, étnicos, religiosos o políticos.

#### **Artículo 10**

1. Todo tratado entre los Estados contratantes que disponga la transferencia de un territorio incluirá disposiciones para asegurar que ninguna persona se convertirá en apátrida como resultado de dicha transferencia. Los Estados contratantes pondrán el mayor empeño en asegurar que dichas disposiciones figuren en todo tratado de esa índole que concierten con un Estado que no sea parte en la presente Convención.

2. A falta de tales disposiciones, el Estado contratante al que se haya cedido un territorio o que de otra manera haya adquirido un territorio concederá su nacionalidad a las personas que de otro modo se convertirían en apátridas como resultado de la transferencia o adquisición de dicho territorio.

#### **Artículo 11**

ematen jarraitu duenean, beste estatutik dirua jaso edo jasotzen jarraitu duenean, estatu kontratugileak beren-beregi halakoa egitea debekatu badu ere, edo

ii) Estatuaren oinarritzko intereseei begira, oso modu kaltegarrian jokatu izan badu;

b) Pertsonak leialtasun-zina edo leialtasun-adierazpen formala egin badio beste estatu bati, edota erakutsi badu, froga erabakigarriak emanez, estatu kontratugileari zor zaion leialtasunari uko egitea.

4. Estatu kontratugileek bakar-bakarrik egikarituko dute pertsona bati naziotasuna kentzeko duen ahalmena, artikuluko honen 2 edo 3. paragrafoetan zehaztutako baldintzetan, eta legearekin bat etorritik; bestalde, legeak berak emango dio interesdunari baliabide guztiak erabiltzeko aukera, auzitegi edo beste edozein organo independenteren aurrean bere defentsan jarduteko.

#### **9. artikulua**

Estatu kontratugileek ezin izango diote inori naziotasuna kendu, ezta pertsona-talde bati ere, arraza-, etnia- erlijio- edota politika-arrazoiengatik.

#### **10. artikulua**

1. Estatu kontratugileen artean lurralde baten transferentzia xedatzen duen tratatu orok barruratuko ditu xedapen egokiak, aipatu transferentziaren ondorioz, inor ere ez dadila aberrigabe bihurtu. Estatu kontratugileek ahalik eta ahalegin handiena egingo dute ziurtatzeko, zer eta, aipatu xedapenak egon daitezela, izaera bereko tratatu guztietan, tratatu horiek egiten direnean konbentzio honen alderdi ez den estatu batekin.

2. Halako xedapenik egon ezean, zein estatu kontratugileri eman lurraldea edota estatu horrek lurralde bat beste modu batean eskuratu badu, estatu horrek bere naziotasuna emango die, bestela aberrigabe bihur daitezkeen pertsonaei, aipatu lurralde-transferentziaren edo -eskuratzearen ondorioz.

#### **11. artikulua**

Los Estados contratantes se comprometen a promover la creación dentro de la órbita de las Naciones Unidas, tan pronto como sea posible después del depósito del sexto instrumento de ratificación o de adhesión, de un organismo al que podrán acudir las personas que se crean con derecho a acogerse a la presente Convención, para que examine su pretensión y las asista en la presentación de la misma ante la autoridad competente.

### **Artículo 12**

1. En relación con un Estado contratante que no conceda su nacionalidad de pleno derecho, según el párrafo 1 del artículo 1 o el artículo 4 de la presente Convención, en el momento del nacimiento de la persona, una u otra disposición, según sea el caso, será de aplicación a las personas nacidas tanto antes como después de la fecha de entrada en vigor de la presente Convención.

2. El párrafo 4 del artículo 1 de la presente Convención será de aplicación a las personas nacidas tanto antes como después de la fecha de entrada en vigor de la presente Convención.

3. El artículo 2 de la presente Convención se aplicará solamente a los expósitos hallados en el territorio de un Estado contratante después de la fecha de entrada en vigor de la presente Convención para ese Estado.

### **Artículo 13**

Nada de lo establecido en la presente Convención se opondrá a la aplicación de las disposiciones más favorables para la reducción de los casos de apatridia que figuren en la legislación nacional en vigor o que se ponga en vigor en los Estados contratantes, o en cualquier otro tratado, convención o acuerdo que esté en vigor o que entre en vigor entre dos o más Estados contratantes.

### **Artículo 14**

Toda controversia que surja entre Estados contratantes referente a la interpretación o la aplicación de la presente Convención, que no pueda ser solucionada por otros

Estatu kontratugileek konpromisoa hartzen dute, seigarren berrespen- edo atxikimendu-instrumentua gordailutu eta ahalik eta lasterren, Nazio Batuen inguruan erakunde bat sortzeko; erakunde horretara jo dezakete, euren ustez konbentzioaren bidez babestuak izateko eskubidea duten pertsonak, eta erakundeak aztertuko du euren uzia eta lagunduko die halakoei uzia aurkezten agintari eskudunen aurrean.

### **12. artikulua**

1. Estatu kontratugile batek, Konbentzio honen 1. artikulua 1. paragrafoaren edo 4. artikulua araberak, pertsona bati ez badiotzat ematen naziotasunik zuzenbide osoz, pertsona jaiotzen den unean, xedapenetatik bata edo bestea, kasuaren arabera, aplikatuko zaie konbentzio hau indarrean jarri den data baino lehen nahiz geroago jaiotako pertsonari.

2. Konbentzio honen 1. artikulua 4. paragrafoa aplikatuko zaie konbentzio hau indarrean jarri den data baino lehen nahiz geroago jaiotako pertsonari.

3. Konbentzio honen 2. artikulua bakar-bakarrik guraso ezagunak gabeko haurrei aplikatuko zaie, hain zuzen ere, estatu kontratugile baten lurraldean aurkitzen diren horiei, estatu horrentzat konbentzio hau indarrean jarri den datatik aurrera.

### **13. artikulua**

Konbentzio honetan ezarritako deus ere ez da eragozpenik izango noiz eta, aberri gabetasun kasuak gutxitzeko estatu kontratugileetan indarrean dagoen edo indarrean jar daitekeen nazio-legeriaren xedapen onuragarrienak aplikatzeko orduan, edota bi estatu kontratugile edo gehiagoren artean indarrean dagoen edo indarrean jar daitekeen beste edozein tratatu, konbentzio edo akordio aplikatzeko orduan.

### **14. artikulua**

Konbentzioaren interpretazioari edo aplikazioari dagokionez, estatu kontratugileen artean sortzen den eztabaida oro Justiziaren Nazioarteko



medios, podrá ser sometida a la Corte Internacional de Justicia por cualquiera de las partes en la controversia.

### **Artículo 15**

1. La presente Convención se aplicará a todos los territorios no autónomos, en fideicomiso, coloniales y otros territorios no metropolitanos de cuyas relaciones internacionales esté encargado cualquier Estado contratante; el Estado contratante interesado deberá, sin perjuicio de las disposiciones del párrafo 2 del presente artículo, declarar en el momento de la firma, ratificación o adhesión a qué territorio o territorios no metropolitanos se aplicará ipso facto la Convención en razón de tal firma, ratificación o adhesión.

2. En los casos en que, para los efectos de la nacionalidad, un territorio no metropolitano no sea considerado parte integrante del territorio metropolitano, o en los casos en que se requiera el previo consentimiento de un territorio no metropolitano en virtud de las leyes o prácticas constitucionales del Estado contratante o del territorio no metropolitano para que la Convención se aplique a dicho territorio, el Estado contratante tratará de lograr el consentimiento necesario del territorio no metropolitano dentro del término de 12 meses a partir de la fecha de la firma de la Convención por ese Estado contratante, y cuando se haya logrado tal consentimiento el Estado contratante lo notificará al Secretario General de las Naciones Unidas. La presente Convención se aplicará al territorio o territorios mencionados en tal notificación desde la fecha en que la reciba el Secretario General.

3. Después de la expiración del término de 12 meses mencionado en el párrafo 2 del presente artículo, los Estados contratantes interesados informarán al Secretario General de los resultados de las consultas celebradas con aquellos territorios no metropolitanos de cuyas relaciones internacionales están encargados y cuyo consentimiento para la aplicación de la

Gortearen mende utziko da, eztabaidan alderdi den edozeinek hala eskatuta, betiere, eztabaida beste baliabide batzuen bidez konpondu ezin bada.

### **15. artikulua**

1. Konbentzio hau aplikatuko zaie autonomoak ez diren lurraldeei, zainpeko lurraldeei, koloniei eta gainerako lurralde ez metropolitarreri, horien nazioarteko harremanen ardura edozein estatu kontratugilek badu; estatu kontratugile interesdunak, sinadura-, berrespen- edo atxikimendu-unean, eta artikulua honen 2. paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, adierazi beharko du zein lurraldetan edo ez metropolitarrer lurraldetan aplikatuko den ipso facto Konbentzioa, aipatu sinadura, berrespen edo atxikimenduaren ondorioz.

2. Naziotasun ondorioetarako, lurralde ez metropolitarraren hartzen ez denean lurralde metropolitarraren osagaitzat, edo estatu kontratugile edo lurralde ez metropolitarraren legeen edo konstituzio egineraren arabera, lurralde ez metropolitarraren adostasuna behar denean konbentzioa lurralde horretan aplikatzeko, orduan estatu kontratugilea saiatuko da lurralde ez metropolitarraren beharrezko adostasuna lortzen, estatu kontratugileak konbentzioa sinatu eta hamabi hilabeteko epean, eta adostasun hori lortu eta gero, estatu kontratugileak Nazio Batuen Idazkari Nagusiari emango dio horren berri. Konbentzioa jakinarazpen horretan aipatu lurraldeari edo lurraldeei aplikatuko zaie, Idazkari Nagusiak jakinarazpena jasotzen duen datatik aurrera.

3. Artikulu honen 2. paragrafoan aipatu 12 hilabeteko epea agortu ondoren, estatu kontratugile interesdunek zein lurralde ez metropolitarraren nazioarteko harremanen ardura izan eta lurralde horietan egindako kontsulten emaitzak jakinaraziko dizkie Idazkari Nagusiari, lurralde horien adostasunaren zain dagoenean konbentzio hau aplikatzea.

presente Convención haya quedado pendiente.

#### **Artículo 16**

1. La presente Convención quedará abierta a la firma en la Sede de las Naciones Unidas del 30 de agosto de 1961 al 31 de mayo de 1962.

2. La presente Convención quedará abierta a la firma:

a) De todos los Estados Miembros de las Naciones Unidas;

b) De cualquier otro Estado invitado a la Conferencia de las Naciones Unidas sobre la supresión o la reducción de la apatridia en lo porvenir;

c) De todo Estado al cual la Asamblea General de las Naciones Unidas dirigiere una invitación al efecto de la firma o de la adhesión.

3. La presente Convención será ratificada y los instrumentos de ratificación se depositarán en poder del Secretario General de las Naciones Unidas.

4. Los Estados a que se refiere el párrafo 2 del presente artículo podrán adherirse a esta Convención. La adhesión se efectuará mediante el depósito de un instrumento de adhesión en poder del Secretario General de las Naciones Unidas.

#### **Artículo 17**

1. En el momento de la firma, la ratificación o la adhesión, todo Estado puede formular reservas a los artículos 11, 14 y 15.

2. No podrá hacerse ninguna otra reserva a la presente Convención.

#### **Artículo 18**

1. La presente Convención entrará en vigor dos años después de la fecha de depósito del sexto instrumento de ratificación o de adhesión.

2. Para todo Estado que ratifique o se adhiera a la presente Convención después del depósito del sexto instrumento de ratificación o de adhesión, la Convención entrará en vigor el nonagésimo día siguiente a la fecha del depósito por dicho Estado de su instrumento de ratificación o de adhesión o en la fecha de entrada en vigor de la Convención de acuerdo con el

#### **16. artikulua**

1. Konbentzio hau Nazio Batuen egoitzan sinatu ahal izango da, 1961eko abuztuaren 30etik 1962ko maiatzaren 31ra arte.

2. Konbentzio hau sinatu ahal izango dute:

a) Nazio Batuen estatu kide guztiek;

b) Etorkezunean aberri gabetasuna ezabatzeko edo gutxitzeko Nazio Batuen Konferentziara gonbidatutako edozein estatuk;

c) Nazio Batuen Biltzar Orokorrak, konbentzioaren sinadura edo atxikimenduaren ondorioetarako, zein estatari gonbitea egin eta estatu horrek.

3. Konbentzio hau berretsi egingo da eta berrespen-instrumentuak Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren esku utziko dira, horrek gordailu ditzan.

4. Artikulu honen 2. paragrafoak aipatu estatuek eman diezaioke atxikimendua Konbentzio honi. Atxikimendua gauzatuko da atxikimendu-instrumentua Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren esku utzita, horrek gordailu dezan.

#### **17. artikulua**

1. Sinadura-, berrespen- edo atxikimendunean, estatu orok erreserbak egin ditzake 11, 14 eta 15. artikuluei buruz.

2. Ezin izango zaio egin beste inolako erreserbarik Konbentzio honi.

#### **18. artikulua**

1. Hitzarmen hau indarrean jarriko da berrespen- edo atxikimendu-instrumentuetatik seigarrena zein datatan gordailutu eta bi urte geroago.

2. Konbentzio honi, berrespen- edo atxikimendu-instrumentuetatik seigarrena gordailutu eta gero, berrespen edo atxikimendua ematen duen estatu ororentzat, konbentzio hau indarrean jarriko da estatu horrek berrespen- edo atxikimendu-instrumentua gordailutu eta laurogeita hamar egun geroago, edo konbentzioa indarren jartzen den egunean,

párrafo 1 del presente artículo si esta última fecha es posterior.

#### **Artículo 19**

1. Todo Estado contratante podrá denunciar la presente Convención en cualquier momento, mediante notificación escrita dirigida al Secretario General de las Naciones Unidas. La denuncia surtirá efecto respecto de dicho Estado un año después de la fecha en que el Secretario General la haya recibido.

2. En los casos en que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 15, la presente Convención se haya hecho aplicable a un territorio no metropolitano de un Estado contratante, éste, con el consentimiento del territorio de que se trate, podrá, desde entonces, notificar en cualquier momento al Secretario General de las Naciones Unidas que denuncia la Convención por lo que respecta a dicho territorio, La denuncia surtirá efecto un año después de la fecha en que haya sido recibida la notificación por el Secretario General, quien informará de dicha notificación y de la fecha en que la haya recibido a todos los demás Estados contratantes.

#### **Artículo 20**

1. El Secretario General de las Naciones Unidas notificará a todos los Estados Miembros de las Naciones Unidas y a los Estados no miembros mencionados en el artículo 16:

- a) Las firmas, ratificaciones y adhesiones previstas en el artículo 16;
- b) Las reservas formuladas con arreglo a lo previsto en el artículo 17;
- c) La fecha en que la presente Convención entrará en vigor en aplicación de lo dispuesto en el artículo 18;
- d) Las denuncias previstas en el artículo 19.

2. El Secretario General de las Naciones Unidas señalará a la atención de la Asamblea General, a más tardar después del depósito del sexto instrumento de ratificación o de adhesión, la cuestión de la creación, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 11, del organismo mencionado en ese artículo.

artikulu honen 1. paragrafoarekin bat etorri, azken data hau geroagokoa bada.

#### **19. artikulua**

1. Estatu kontratugile orok salatu ahal izango du konbentzio hau edozein unetan, Nazio Batuen Idazkari Nagusiari horren inguruko jakinarazpen idatzia eginez. Salaketak, estatu horri dagokionez, ondorioak sortuko ditu, Idazkari Nagusiak jakinarazpena jaso eta urtebetera.

2. 15. artikuluekin bat etorri, Konbentzio hau estatu kontratugilearen lurralde ez metropolitarrari aplikatzen zaionean, estatu kontratugileak, kasuan kasuko lurraldearen adostasunarekin, une horretatik bertatik, eta edozein unetan jakinarazi ahal izango dio Nazio Batuen Idazkari Nagusiari Konbentzioa salatzen duela, lurralde horri dagokionez. Salaketak ondorioak sortuko ditu Idazkari Nagusiak jakinarazpena jaso eta urtebetera, eta hark emango dizkie beste estatu kontratugile guztiei jakinarazpenaren eta hori jasotako dataren berri.

#### **20. artikulua**

1. Nazio Batuen Idazkari Nagusiak jakinaraziko dizkie Nazio Batuen kide guztiei eta 16. artikuluan aipatu estatuei, hain zuzen ere, erakundearen kide ez direnei:

- a) 16. artikuluan aurreikusitako sinadura, berrespen eta atxikimenduak;
- b) 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egindako erreserbak;
- b) Konbentzio hau indarrean jartzeko data, 18. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri;
- d) 19. artikuluan aurreikusitako salaketak.

2. Nazio Batuen Idazkari Nagusiak Biltzar Orokorrari adieraziko dio, gehienez ere, berrespen- eta atxikimendu-instrumentuetatik seigarrena gordailutu eta gero, 11. artikulurekin bat etorri, artikulua horretan aipatu erakundea sortzeko gaia.

## Artículo 21

La presente Convención será registrada por el Secretario General de las Naciones Unidas en la fecha de su entrada en vigor.

EN FE DE LO CUAL, los plenipotenciarios infrascritos han firmado la presente Convención.

HECHO en Nueva York, el treinta de agosto de mil novecientos sesenta y uno, en un solo ejemplar, cuyos textos en chino, español, francés, inglés y ruso hacen fe por igual, que será depositado en los archivos de las Naciones Unidas y del cual el Secretario General de las Naciones Unidas entregará copias debidamente certificadas a todos los Estados Miembros de las Naciones Unidas y a todos los Estados no miembros a que se hace referencia en el artículo 16 de la presente Convención.

## 21. artikulua

Konbentzio hau Nazio Batuen Idazkari Nagusiak erregistratuko du indarrean jartzen den datan.

HORI GUZTIORI AITORTUZ, behean sinatzen duten ahalguztidunek Konbentzio hau sinatzen dute.

New Yorke EGINA, mila bederatzehun eta hirurogeita bateko abuztuaren hogeita hamarrean, ale bakarrean, berori gordailutuko dela Nazio Batuen artxiboetan; berebat, aitortzen dira txineraz, espainieraz, frantsesez, ingelesez eta errusieraz egindako testuak; ildo beretik, Nazio Batuen Idazkari Nagusiak behar bezala ziurtatutako kopiak emango zaizkie Estatu Batuen estatu kide guztiei eta Konbentzio honen 16. artikulua aipatu estatuei, hain zuzen ere, kide ez direnei.